

Bakioko Kultur Etxeak ardo-dastatze ikastaro bat eta irakurtze-tailer bat antolatu ditu datorren asterako

BILBO, 4 (EUROPA PRESS) Bakioko Kultur Etxeak ardo-dastatze ikastaro "original" bat antolatu du abuztuaren 7, 8 eta 9rako, arratsaldeko 18,30etatik 20,30ak arte. Halaber, herriko liburutegiak antolaturiko irakurtze-tailerrak jarriko dira berriro martxan. Bakioko Udaleko iturriek prentsa-ohar bidez gaur jakinarazi dutenez, ardo-dastatze ikastaroaren kostua 30 eurokoa izango da eta izena eman nahi dutenek Kultur Etxean bertan egingo beharko dute ikastaroaren aurretik. Irakurtze-tailerra abuztuaren 7tik 22ra bitartean egingo da. Kostaldean ekimen aitzindaria da, eta 6 eta 12 urte bitarteko umeentzat jolas-jardunaldi eta hondartzako harrietan idazteko edo maskorrekin erretratuak egiteko doako tailer "erakargarriak" eskainiko ditu. Bakarne Egia Bakioko Udaleko Kultura zinegotziak adierazi duenez, "jarduera honekin hondartzan irakurtzeko gune baten esperientzia prestatu nahi da, liburuen eta aldizkarien maileguak barne sartuz".